

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA AZPIEGITURAK, S.A.M.P. SOZIETATEAREN ARTEKO HITZARMENAREN 4. ZK.KO ALDAKETA ONARTZEA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK AZPIEGITURAK, S.A.M.P. FORU-SOZIETATEARI ENKARGUA EGIN DIEZAION 42 BIZKAIA ESPAZIOA ERABERRITZEKO ETA MANTENTZEKO

MODIFICACION Nº 4 DEL CONVENIO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y AZPIEGITURAK, S.A.M.P. PARA REALIZAR EL ENCARGO DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA A LA SOCIEDAD FORAL AZPIEGITURAK, S.A.M.P. PARA EJECUTAR LA REFORMA Y MANTENIMIENTO DEL ESPACIO 42 BIZKAIA

BILDU DIRENAK

SE REUNEN

Ainara Basurko Urkiri andrea erakunde horren izenean eta beraren ordezkari gisa, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2023ko azaroaren 2ko Erabakiaren bidez emandako ahalmenik erabiliz.

De una parte, Ainara Basurko Urkiri en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, actuando en virtud de las facultades otorgadas mediante Acuerdo de la Diputación Foral de fecha 2 de noviembre de 2023.

Eta bestetik, Itziar Garamendi Landa andrea, Azpiegiturak, SAMP sozietatearen izenean eta ordezkari gisa (IFZ: A-95616892; helbidea: Islas Canarias 9-1- Bilbo), 2015eko otsailaren 6 datan Andrés María Urrutia Badiola notarioaren aurrean (haren protokolo 1449 zenbakia) emandako ahalordea dela bide.

De otra parte, Itziar Garamendi Landa, en nombre y representación de Azpiegiturak, S.A.M.P., con N.I.F. A-95616892 y domicilio en Bilbao, C/ Islas Canarias nº 19-1º, en virtud de los poderes otorgados con fecha 6 de agosto de 2015 mediante escritura pública nº 1449 ante el notario Andrés María Urrutia Badiola.

Alderdiek, hasieran formalizatutako hitzarmenean adierazitako eskumenetan oinarrituta (ordezkatzen dituzten erakundeei dagozkie eskumen horiek), behar den gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri hitzarmenaren 4. aldaketa hau izenpetzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Azpiegiturak S.A.M.P. sozietatearen artean, betiere 42 Bizkaia espazioa berritzeko eta mantentzeko eginkizuna betetzea helburu.

Las partes, en base a las competencias ya indicadas en el convenio inicialmente formalizado que corresponden a las entidades que representan, se reconocen la capacidad jurídica necesaria para suscribir la presente Modificación nº 4 del convenio entre la Diputación Foral de Bizkaia y Azpiegiturak, S.A.M.P. para realizar el encargo de la Diputación Foral de Bizkaia a la sociedad foral Azpiegiturak, S.A.M.P. para ejecutar la reforma y mantenimiento del espacio 42 Bizkaia y en su virtud

ADIERAZTEN DUTE

LEHENENGOA

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Azpiegiturak, S.A.M.P. sozietateak, indarrean dagoen araudiaren arabera esleituta dituzten eskumenak baliatuz, beharrezkotzat jo zuten Bizkaiko Foru Aldundiak Azpiegiturak, S.A.M.P. foru sozietateari 42 Bizkaia espazioa eraberritzeko eta mantentzeko enkargua egiteko hitzarmena formalizatzea 2019ko abenduaren 17an.

Inguruabarrak zirela eta, hiru aldiz berrikusi behar izan zen enkargu hori, eta hitzarmenaren hirugarren klausula eta I. eranskina aldatu ziren. Aldaketa horiek 2020ko ekainaren 10ean, 2020ko abenduaren 29an eta 2022ko azaroaren 30ean formalizatu ziren..

Halaber, 2022ko azaroaren 29an, enkargua likidatzea erabaki zen, Bizkaiko 42. eremua eraberritzeko eta egokitzeko lanen zatiari zegokionez, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren aldeko saldoa eman zen.

BIGARRENA

Gaur egun, enkargua modu eraginkorrean gauzatu dadin eta enkarguaren xedea lehen klausulan aurreikusitakoa bete dadin, hirugarren klausula aldatu behar dela uste da, Bizkaiko 42. guneko mantentze-lanen, horniduren, komunikazioen eta segurtasunaren kostuak ordaintzeko 2023. urteari dagozkion urteko zenbatekoak egungo egoerara egokituz.

MANIFIESTAN

PRIMERO

La Diputación Foral de Bizkaia, así como Azpiegiturak, S.A.M.P., en el ejercicio de las competencias que de acuerdo con la normativa vigente tienen atribuidas, consideraron necesario formalizar el 17 de diciembre de 2019 un convenio para realizar el encargo de la Diputación Foral de Bizkaia a la sociedad foral Azpiegiturak, S.A.M.P. para ejecutar la reforma y mantenimiento del espacio 42 Bizkaia.

Debido a las circunstancias acaecidas se hizo preciso revisar dicho encargo en tres ocasiones procediéndose a modificar la cláusula tercera y el anexo I del convenio. Estas modificaciones se formalizaron el 10 de junio de 2020, el 29 de diciembre de 2020 y el 30 de noviembre de 2022.

Así mismo, con fecha 29 de noviembre de 2022 se acordó la liquidación del encargo en la parte correspondiente a la ejecución de la reforma y adecuación del espacio 42 Bizkaia, arrojando la misma un saldo favorable a la Diputación Foral de Bizkaia.

SEGUNDO

Actualmente, y con el propósito de que el encargo se ejecute de manera eficaz y se cumpla el objeto del mismo previsto en su cláusula primera, se considera necesario modificar nuevamente la cláusula tercera del convenio para adaptar a las necesidades actuales de mantenimiento, así como las de suministros, comunicaciones y seguridad del mismo el importe de las anualidades destinadas a sufragar este tipo de costes durante el año 2023.

HIRUGARRENA

Horretarako, lankidetzaz-irizpideei eta eraginkortasun eta ekonomia handienari jarraiki, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulutik eta horrekin bat datozen gainerako manuetatik eta araudi aplikagarritik ateratzen diren ahalmenak erabiliz, aipatutako aldaketa 2022ko azaroaren 2ko Foru Erabakiaren bidez onetsi, Azpiegiturak, S.A.M.P.k idazki bat aurkeztu du, non jasotzen baita zein izan den 2023. urtean egin diren mantentze-lanen, horniduraren, komunikazioen eta segurtasunaren arloko gastuen benetako zenbatekoa. bi alderdiek formalizatu egin dute 42 Bizkaia espazioa eraberritzeko eta mantentzeko aginduari buruz Bizkaiko Foru Aldundiak eta foru sozietatea Azpiegiturak, S.A.M.P.ek sinatutako hitzarmenaren 4. aldaketa, honako honen arabera:

TERCERO

A tal efecto, atendiendo a los criterios de cooperación y máxima eficacia y economía y haciendo uso de las facultades que para las Administraciones públicas resulta del artículo 47 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de régimen jurídico del sector público y demás preceptos concordantes y normativa aplicable, ambas partes, una vez aprobada la citada modificación mediante Acuerdo Foral de 2 de noviembre de 2023 y habiendo presentado Azpiegiturak, S.A.M.P un escrito donde se recoge el importe real de los gastos de mantenimiento, suministros, comunicaciones y seguridad en los que se ha incurrido en el año 2023, proceden a formalizar la Modificación nº4 del Convenio suscrito entre la Diputación Foral de Bizkaia y Azpiegiturak, S.A.M.P. para materializar el encargo de la Diputación Foral de Bizkaia a la sociedad foral Azpiegiturak, S.A.M.P: para ejecutar la reforma y mantenimiento del espacio 42 Bizkaia con arreglo a las siguientes

KLAUSULAK

Bakarra. 42 Bizkaia espazioa eraberritzeko eta mantentzeko lanak egiteko, Bizkaiko Aldundiaren eta Azpiegiturak, S.A.M.P.en artean sinatutako hitzarmenaren hirugarren klausularen aldaketa.

Honela geratzen da idatzita 2022ko azaroaren 30an sinatutako hitzarmenaren hirugarren klausula:

CLAUSULAS

Única. Modificación de la cláusula tercera del convenio entre la Diputación Foral de Bizkaia y Azpiegiturak, S.A.M.P. para ejecutar la reforma y mantenimiento del espacio 42 Bizkaia.

La cláusula tercera del convenio suscrito el 30 de noviembre de 2022 pasa a tener la siguiente redacción:

“3. Prezioa eta ordaintzeko modua

Enkarguaren prestazioa baldintza ekonomikoen eta tarifikazioaren araubidearen mende dago, eta l. eranskin gisa gehitu zaizkio Enkargu honi.

Aurrekoarekin bat etorriz, Azpiegiturak SAMPI agindutako azpiegituraren finantzaketa berariaz gaitutako kredituaren kargura egingo da.

Nahikoa kreditu dago Azpiegiturak, S.A.M.P. sozietateari enkargua egiteko honako aurrekontu-partida eta urteko zenbateko hauetan:

Urtea	08.03/426.106/ 691.02 2019/0091	08.03/426.106/ 237.99 2019/0091
2019	2.191.000,00 €	
2020	482.268,94 €	
2021		356.424,38 €
2022		204.018,55 €
2023		237.771,29 €

Zenbatekoak aurrekontu-kostuetan (l. eranskinen jasota daude) oinarrituta zehaztu dira.

42 Bizkaia proiekturako espazioa eraberritzeko lanen ordainketa 2019 eta 2020 ekitaldiaren kargura egingo da, Azpiegiturak SAMP sozietateak emandako fakturak jaso eta adostasuna azaldu ondoren. Espazioa eraberritzeko lanak amaituta, sozietateak dagokion faktura zuzentzailea emango du.

Eraikinaren mantentze-lanen kudeaketari dagokion ordainketa, bai eta 42 Bizkaia proiektuaren funtzionamendurako behar diren hornidurak, komunikazioak eta segurtasuna ere, honela egingo da:

- 356.424,38 euro, 2021. urteari dagozkionak, urteko lehen hiruhilekoan ordaindu ziren, Azpiegiturak, S.A.M.P.k egindako faktura jaso ondoren, alde zuzenetik adostasuna.

“3. Precio y forma de pago

La prestación del Encargo está sometida al régimen de condiciones económicas y de tarificación que se incorporan a este Encargo como Anexo I.

En función de lo anterior, la financiación de infraestructura encargada a Azpiegiturak, S.A.M.P. se realizará con cargo al crédito habilitado a tal efecto.

Existe crédito suficiente para la realización del encargo a Azpiegiturak, S.A.M.P. en las siguientes partidas presupuestarias y anualidades:

Año	08.03/426.106/ 691.02 2019/0091	08.03/426.106/ 237.99 2019/0091
2019	2.191.000,00 €	
2020	482.268,94 €	
2021		356.424,38 €
2022		204.018,55 €
2023		237.771,29 €

La determinación de estos importes se ha realizado en base a los costes presupuestados incorporados en el Anexo I

El pago correspondiente a la reforma del espacio destinado al proyecto 42 Bizkaia se realizará con cargo a los ejercicios 2019 y 2020, tras la recepción de las facturas emitidas por Azpiegiturak, S.A.M.P., previa conformidad. A la finalización de la reforma Azpiegiturak, S.A.M.P. emitirá la correspondiente factura rectificativa.

El pago correspondiente a la gestión del mantenimiento del edificio, así como los suministros, comunicaciones y la seguridad necesaria para el funcionamiento del proyecto 42 Bizkaia se realizará de la siguiente forma:

-356.424,38 euros correspondientes a la anualidad 2021 se abonaron el primer trimestre del año tras la recepción de la correspondiente factura emitida por Azpiegiturak, S.A.M.P., previa conformidad.

- 2022. urteari dagozkion 204.018,55 euro urteko azken hiruhilekoan ordaindu ziren, Azpiegiturak, S.A.M.P.k egindako faktura jaso ondoren, alde zurretik adostuta.

- 2023. urteari dagozkion 237.771,29 euroak, honela ordainduko dira;

-150.000,00 euro 2023ko martxoaren 31 baino lehen

-gainerako 87.771,29 euroak 2023ko urriaren 31 baino lehen.

Nolanahi ere, ordainketak horiek egiteko, Azpiegiturak, S.A.M.P. sozietateak faktura bat egingo du, eta faktura jaso ondoren ordainduko da, alde zurretik adostuta.

Eta horrela jaso dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, alderdiek hitzarmen hau sinatu dute,

-204.018,55 euros correspondientes a la anualidad 2022, se abonaron en el último trimestre del año tras la recepción de la correspondiente factura emitida por Azpiegiturak, S.A.M.P., previa conformidad.

-237.771,29 euros correspondientes a la anualidad 2023, de la siguiente forma.

-150.000,00 euros se abonarán antes del 31 de marzo de 2023

-los restantes 87.771,29 euros antes del 31 de octubre de 2023.

En todo caso, para realizar estos pagos, Azpiegiturak, S.A.M.P. emitirá una factura que se abonará tras la recepción de la misma, previa conformidad".

Y, para que conste y surta los efectos oportunos donde proceda, las partes firman el presente convenio.